

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2019/2020 ikasturtea

**BLOGAK ESKOLA-LIBURUTEGIETAN: BALIABIDE OPAROA
HEZKUNTZA KOMUNITATEARENTZAT**

Egilea: Ane Castro Elcoro

Zuzendaria: Maite Serna Martinez

Leioan, 2020(e)ko ekainaren 25ean

AURKIBIDEA

Sarrera.....	1. or.
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta gaur egungo joera.....	2. or.
1.1. XIX eta XX. mendeak: Berrikuntzak eta atzerapausoak.....	2. or.
1.2. XX. mendearen amaiera eta XXI. mendea: aurrera-atzera ostabere	2. or.
1.3. XXI. mendea: Internet eta aldaketa.....	5. or.
1.4. Blogen funtzioa Hezkuntzan, bai ikastetxeetan eta bai eskola- liburutegietan.....	7. or.
1.5. Eskola-liburutegi eta eskola-liburutegi blogen funtzioa Haur Hezkuntzan.....	8. or.
1.6. Eskola-liburutegi blogen esperientziak.....	10. or.
2. Metodologia.....	11. or.
2.1. Sarrera.....	11. or.
2.2. Zergatik erreproduzitu azterketa hori.....	12. or.
2.3. Lagina.....	13. or.
2.4. Neurketa.....	14. or.
2.4.1. Itemak.....	14. or.
2.4.2. Neurketa.....	15. or.
3. Emaitzak.....	15. or.
3.1. Emaitzen analisia.....	17. or.
4. Ondorioak.....	20. or.
4.1. EAEko ikerketaren emaitzen ondorioak.....	20. or.
4.2. Faba eta Garcíaren ikerketaren emaitzekin konparaketa.....	20. or.
4.3. Eskola-liburutegi blogen egoera eta etorkizuna.....	21. or.
5. Bibliografia.....	22. or.
6. Webgrafia.....	25. or.
7. Eranskinak	
I. ERANSKINA	
II. ERANSKINA	
III. ERANSKINA	
IV. ERANSKINA	
V. ERANSKINA	
VI. ERANSKINA	
VII. ERANSKINA	
VIII. ERANSKINA	

BLOGAK ESKOLA-LIBURUTEGIETAN: BALIABIDE OPAROA

HEZKUNTZA KOMUNITATEARENTZAT

Ane Castro Elcoro

UPV/EHU

Lan honen xedea Extremaduran (Espainian) egindako eskola-liburutegi blogen ikerketa EAEko eskola-liburutegi blogekin erreproduzitzea izan da, gure Erkidegokoen errealitatea aztertzeke eta Extremadurako ikerketako emaitzekin konparatzeko. Ikerketa egiteko, Extremadurako ikerketaren eredia jarraitu da. Ikerketak agerian utzi du, batetik, EAEko eskola-liburutegi asko desagertu egin direla, Administrazioak aspaldi utzi baitzituen hauek finantzaziorik gabe eta liburuzainen plazak desagerrarazten, frogatuta egon arren euskarri aparta direla ikasle, irakasle eta familientzat. Bestetik, ikerketak azaleratu du bizirik jarraitzen duten eskola-liburutegi blog gutxiak kalitate ona dutela, baina etorkizun iluna, pertsona batzuen adorea pean baitaude, irakurzaletasuna eta bestelako hezkuntza jarduerak zabaltzeko hain baliabide garrantzitsua badira ere (COVID-19k eragindako pandemia egoeran erakutsi duten moduan).

EAE, Haur Hezkuntza; eskola-liburutegia; bloga; kalitatezko blog baten irizpideak

El objetivo de este trabajo ha sido reproducir la investigación sobre los blogs de las bibliotecas escolares realizada en Extremadura (España), con el fin de analizar la realidad de los blogs de la Comunidad Autónoma Vasca y poder compararla con los resultados de la investigación de Extremadura. Para esta investigación se ha seguido el modelo de investigación de la de Extremadura. El estudio muestra que, por un lado, muchas bibliotecas escolares de la CAV han desaparecido, ya que la Administración hace tiempo que ha anulado su financiación y ha ido eliminando las plazas de bibliotecario/a, a pesar de que se ha demostrado que son un gran apoyo para estudiantes, maestros y familias. Por otro lado, esta investigación ha demostrado que los pocos blogs de bibliotecas escolares sobrevivientes en la CAV, tienen buena calidad, pero un futuro sombrío, ya que existen únicamente gracias a la voluntad de algunas personas, aunque son un recurso fundamental para difundir la lectura y otras actividades educativas (como así lo han demostrado en la situación de pandemia causada por el COVID-19),

Comunidad Autónoma Vasca, educación infantil; biblioteca escolar; blog; modelo de indicadores de calidad

The objective of this work is to reproduce the research of school library blogs carried out in Extremadura (Spain) to analyze the reality of the Basque Country's school library blogs and to be able to make a comparison with the results of the Extremadura research. In order to achieve this aim, the research model of Extremadura has been followed. The study shows that, first of all, many school libraries in the Basque Country have disappeared, due to the lack of funds and elimination of school librarians, despite the fact that it has proven that school libraries are great support for students, teachers and families. On the other hand, this research has shown that the few surviving school library blogs are of good quality, but of a bleak future as they are under the courage of some people, despite being an important resource for spreading reading and other activities (as demonstrated by the pandemic situation caused by COVID-19).

Basque Country; early childhood education; school library; blog; quality indicator model

Sarrera

GRAL honetan, liburutegien, eskola-liburutegien eta eskola-liburutegi blogen inguruko azterketa bibliografikoa burutu ostean, Euskal Autonomia Erkidegoako (hemendik aurrera, EAE) eskola-liburutegi blogak aztertu dira.

Azterketa bibliografikoan, Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) baino urte batzuk lehenagotik gaur egun arte liburutegiek eta eskola-liburutegiek izan dituzten berrikuntzak eta atzerapausoak azaltzen dira, funtsezkoa baita iraganera begiratzea gaur egungo eskola-liburutegien egoera ulertzeko. Egin den ikerketa historikoaren ebidentzia I Eranskinean aurki daiteke. Era berean, Marko teorikora ekarri dugu teknologia berriek sortutako aldaketek nola eragin dieten liburutegiei: negatiboak, Internet agertu denetik beste informazio iturri eskuragarriago daudenez, liburutegiekiko interesa gutxitu baita; baina positiboak ere bai, liburu, dokumentu, artxibo eta informazio baliabide ugari guztioi errazago zabaltzen dizkigutelako.

Eskola-liburutegien eraberritze prozesuan, teknologia berriak integratzearen alde egin dute hezkuntzan lan egiten duten pertsona askok, eta horietako batzuek blogen aldeko apustua ere egin dute. Errebisio teorikoan horien arrazoiak ageri izan ditugu, eskola-liburutegi blogen garrantzia nabarmentzeko. Marko teorikoarekin bukatzeko, eskola-liburutegiak eta beren blogak Haur Hezkuntzan ere zergatik diren garrantzitsuak eta zein funtzio bete dezaketen azaltzen da, baita eskola-liburutegi blogen esperientzia interesgarri batzuk ere.

GRAL lan honetan burutu den ikerketari dagokionez, Faba eta Garciak (2015) Extremaduran (Espainia) egindako eskola-liburutegi blogen gaineko ikerketa hartu da oinarritzat, EAEko eskola-liburutegi blogen azterketan erreproduzitzeko. Erreproduzitzaren arrazoi nagusiak bi izan dira: lehena, EAEko eskola-liburutegi blogen errealitatea aztertzea balioztaturik dagoen ikerketa baten bitartez; bigarrena, EAEko ikerketaren emaitzak beste Autonomia Erkidegoko azterketa baten emaitzekin konparatu ahal izatea, eta alderaketaren ondorioak agertzea.

Azterketaren bidez, gure lagineko blogekin sailkapen bat egin da, kalifikazio handienetik baxuenera. Hala ere, argi utzi nahi dugu sailkapenaren helburua ez dela eskola-liburutegi blogen ranking bat egitea. Izan ere, sailkapeneko kalifikazioa bidelaguna baino ez da, hau da, blogak era objektiboan aztertzeko tresna, eta beraz, helburu bakarra da blog bakoitza hobetu beharreko ez konturaraztea.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta gaur egungo joera

Ezinbestekoa da iragana ezagutzea norantza joan eta noraino heldu nahi den jakiteko. Horregatik, garatuko den gai honetan (eskola-liburutegiak eta haien blogak) ere, aipatu behar dugu liburutegiek historia oso luzea dutela, Mesopotamian (3.000 K.a.) izanik haien sorrera. Hastapenetan, “liburutegia” hitzak dioen moduan, liburuak gordetzeko edo biltzeko tokia besterik ez zen, baina ez edozein liburu gordetzeko; izan ere, politikari, ekonomiari edo erlijioari lortutako liburuak bakarrik biltzen ziren, hauek izan baitzuten sasoi hartan erregistratzeko beharrik handiena zutena.

Begi bistakoa da liburutegien definizioa, baita funtzioa ere, asko aldatu dela Mesopotamia garaitik, gizartea aldatu den moduan, eta hala eta guztiz ere, zoritxarrez, liburutegi asko eta asko, praktikan, Mesopotamiako liburutegietatik hurbilago daude gaur egun liburutegiei eman nahi zaien planteamendutik baino, lan honetan zehar ikusiko dugun moduan.

Espanian, eskola-liburutegiek izan zituzten hastapenei erreferentzia egitea garrantzitsua iruditzen zaigu, horien garapenaren (edota garapen ezaren) gako hori baitago. Horretarako, Ricardo Gonzalez Castrillok 2011an idatzitako “Ojeada históricas escolares en España” lana hartu da oinarritzat, dokumentuaren zehaztasunak eta argibideak XIX. eta XX. mendeetan liburutegiek eta eskola-liburutegiek izan dituzten berrikuntzak eta atzerapausoak ondo ulertzen laguntzen duelako (ikus I Eranskinean gertaera horiekin guztiekin sortu dugun taula).

1.1. XIX eta XX. mendeak: Berrikuntzak eta atzerapausoak

Espanian, liburutegien errealitate kezkarriaren hasiera, Gonzalezen (2011) arabera, Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) inguruan kokatzen da, eta itxaropen garai batzuetan salbu, gaur egunera arte heltzen da, 2005ean Germán Sánchez Ruipérez Fundazioak (FGSR) eta IDEA Institutuak, eta 2017an Ines Miretek eta Mónica Barok egindako ikerketek agerian jarri duten moduan. Ikerketa horietan ondorioztatu zuten, gaur egun, eskola-liburutegi gehienak ezin direla eskasago egon, bestelako liburutegi kontzeptu berria (hau da, liburu biltegi hutsa ez dena, baizik eta Hezkuntza komunitateari behar duen zerbitzua ematen diona) desio bat baino ez baita, inolaz ere errealitate bat.

1.2. XX. mendearen amaiera eta XXI. mendea: aurrera-atzera ostabere

Eskola-liburutegiak Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) baino lehen agertu ziren, eta horiek sustatzen garaiko pertsonaia asko aritu ziren (ikus I Eranskina pertsonaia horien ekimen garrantzitsuen xehetasunekin). Hala ere, ahaleginak ahalegin, proiektu askok iraun bazuten ere, beste batzuek ez zuten argia ere ikusi. Hortaz, indar handiarekin hasitako Eskola-liburutegien Proiektua, Gerra Zibila amaitzean (1939) bertan behera geratu zen, Francoren gobernuko Hezkuntza instituzioen aldetik liburutegiek ez baitzuten bultzadarik izan (Salaberria, 2008).

Beste herrialde batzuetan, ordea, eskola-liburutegien egoera bestelakoa izan da. Adibide bat jartzeagatik, aipatu dezakegu 1989an, Frantziar, Lionel Jospinek (Frantziar Errepublikako politikaria eta Lehen Ministroa 1997-2002 bitartean) adierazi zuen eskola bakoitzak informazio bilketarako zentroa, hau da, liburutegia, izan ezean, ezingo litzatekeela zentro hori abian jarri. Honekin batera, Frantziar Errepublikan, liburutegietako arduradunek hierarkian gorantz egin zuten, liburuzaina izatetik, irakasle izatera pasatuz, eskolako gainontzeko irakasleen parean kokatuz. Gauzak horrela, egun, Frantziar, liburuzaina ez da liburuak zaintzen dituen pertsona soilik, bere eginkizuna, besteak beste, ikasleei informazioa bilatzen, aztertzen eta interpretatzen irakastea da; izan ere, Hezkuntza erakundeak informazioa ondo erabiltzea faktore pedagogiko gisa txertatzen du diziplina desberdinetako programetan (Salaberria, 2008).

Herrialde hartako berrikuntza horiek Espainiara oraindik ez dira guztiz heldu. Autonomia Erkidego gutxi batzuetan bai egin dira eskola-liburutegien inguruko diagnostiko azterketak, baina, tamalez, kasu puntualetan eta jarraitasuna emateko inolako intentziorik edo aukerarik gabe. Ikerketarik sakonena Estatu mailan, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioak (FGSR) eta IDEA Institutuak 2005ean burutu zuten. Horretarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 400 zentro (publiko, pribatu eta itunpekoak), 3.859 irakasle eta 16.000 ikasle hartu zituzten kontutan. Ikerketa horren bidez lortutako emaitzek agerian utzi zuten Espainian, Europako eskola-liburutegien artean txarrenak genituela. Orduko ikerketa orokor horrek hurrengo datu deigarri eta kezagarri hauek azalerratu zituen: aurrekontu zehatzik ez zutenak eskola-liburutegien %51 ziren; informazio zerbitzurik ez zutenak %80; eskola-liburutegiko lanei ordu bete edo gutxiago eskaintzen dien liburutegien arduradunak %62,8 ziren; ume bakoitzeko 10 dokumentu baino gehiago zituztenak %28; teknologia

baliabide egokiak zituztenak %8,7; eta eskola-liburutegiak erabiltzen ez zituzten irakasleak %40 ziren, eta ikasleak %50 (Fierro, 2008).

Harritzekoa zen, Estatu Espainoleko ikastetxeen %80k eskola-liburutegia izanik (2005ean behintzat), hain datu tamalgarriak erakustea, nabarmen gelditzen baitzen eskoletan liburutegia egon arren, egote hutsak ez zuela esan nahi liburutegi funtzioa betetzen zutenik. Izan ere, askok materiala zaharkituta zuten; liburu gehienak literaturakoak bakarrik ziren (%73,9), arduradunek ordu gutxi eskaintzen zioten lan horri, eta honen ondorioz ere eskola orduetatik kanpo ez ziren irekitzen; ez zuten liburutegi batzorderik; diru gutxirekin moldatu behar ziren; eta gainera, eskola eta liburutegia, bakoitza bere aldetik zihoan (Fierro, 2008).

Ikerketa hau egin eta urte bat beranduago, Miret eta Barók (2017) azaltzen duten moduan, 2006an eskoletan liburutegiak egotea derrigorrezkotzat jotzen zuen artikulua, LOEko (Ley Orgánica de Educación) 13. artikulua hain zuzen ere, onetsi zen, eta horren ondorioz, Espainiako Hezkuntza Ministerioak hitza eman zuen zazpi urtez 79 milioi euro eskainiko zituela eskola-liburutegien sustatzearen alde. Honi esker, 2008tik aurrera hobekuntza nabaritu zen eskola-liburutegien zerbitzuan, baina bakarrik 2011 urtera arte. Izan ere, eskola-liburutegiak berpiztear eta egonkortze arazoak zeudela uste zenean, 2011 eta 2016 urteen bitartean Espainiako Gobernuak eskola-liburutegiak sustatzeko programarako finantzazioa erabat murriztu zuen, eta berriz ere, liburutegietan lortutakoak atzera egin zuen (Miret eta Baró, 2017).

Serna, Rodríguez eta Etxanizek (2017) aipatzen dute Coronasen (2000) ustez, eskola-liburutegi berria zentroaren hezkuntza zerbitzu, ardatz dinamizatzaile, irakurketa trebakuntzaren eta irakurtzeko ohitura sustatzeko eta bermatzeko giltzarria dela. Serna, Rodríguez eta Etxanizek (2017) gehitzen dute eskola liburutegiaren funtzioa ikasleei eta irakasleei ikas-irakasteko lekua eskaintzea ere badela. Era berean, XXI. mendeko hezkuntza sistemak duen gaurkotze prozesurako, beharrezkotzat jotzen dute eskola-liburutegi berrian teknologia berriak sartzea.

Hau da eskola liburutegien planteamendu teorikoa, baina aurreko paragrafoetan aipatu bezala, errealitatea beste bat da, Espainian behintzat. Franco garaian bezala, nahiz eta legeek eskola-liburutegia tresna pedagogiko eta irakurketaren sustapenerako eragile gisa onartu, praktikan, ikastetxeetan ez da konpromisorik ikusten. Hala adierazten du Sernak

(2015, 8 or.) bere tesian: "...eskola-liburutegiak oraindik garatu gabeko kontua dira Espainiar estatuko hezkuntza eta liburutegi sisteman". Berdin salatu berri du Col·legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya bere azken Editorialean (2020ko apirilean).

Urteak pasa ahala, eskola-liburutegiaren arloan diharduten pertsonen lan asko egin arren, aurrerapenak gutxi izan dira. Hezkuntza Ministerioen (Espainiako zein Erkidegoetako Gobernuen) babesa eta laguntzarik gabe, Administrazioaren aldetik hain jarrera pasibo, sendotasun eta trinkotasunik gabea izanda, hezkuntza prozesurako kalitatezko eskola-liburutegiak benetan lagungarriak bihurtzea oso zaila da (Salaberria, 2008; Sernak, 2015) adierazitakoarekin bat dator Jose Maria Nogales (2017), ANABAD-eko (Federación de Archivos, Bibliotecarios, Arqueólogos, Museólogos y Documentalistas) lehendakaria: "Eskola-liburutegia, ez ohiko egoeretan ez ezik, gure herrian ez da sistema gisa existitzen. Hau penagarria da"¹.

Fierroren (2008) arabera, eskola-liburutegiak guztiz gutxietsita daude, bai hezkuntza komunitatearen aldetik, eta baita Administrazioaren aldetik ere. Horren seinaleak dira a) ez dagoela hauek ebaluatzeko praktika sistematizaturik, eta beraz, ez dago eskola-liburutegiak hezkuntzarako benetan baliabide baliagarriak direla ziurtatzen duen kontrolrik, eta b) kudeaketa politikaren eta lan prozeduren estandarizazioa eskasa dela.

1.3. XXI. mendea: Internet eta aldaketa.

Internet deritzon elkarri lotutako komunikazio sare deszentralizatu zerbitzu berria 1969an sortu zuten, eta XX. mendearen bigarren zatiaren azkeneko urteetan erabat gizarteratu zen. Urte gutxi batzuk geroago, zerbitzu honek orain arte erabiltzen zen informazioa biltzeko edo bilatzeko era kolokan jarri zuen. Gizartea zer gertatzen ari zen ulertzen saiatzen zegoen bitartean, Internet bete-betean sartu zen gizabanakoon bizitzan. Berdin gertatu zen liburutegietan, eta hortaz, eskola-liburutegietan ere, zeren eta Internetek liburutegien ordurarteko lan egiteko eta erabiltzeko moduan arrakalak sortu zituen: alde batetik, informazioa eskuratu, zabaldu zein kudeatzeko modu berriengatik, eta beste aldetik, digitalizazioarengatik, (Durban, 2010). Liburutegiaren kontzeptua irauli egin zen.

¹Pasarte hau lan honen egileak itzuli du gazteleratik.

Gauzak horrela, teknologia berrien etorrerak eta garapenak gizartean aldaketak eragiteaz gain, liburutegiak eta, hortaz, eskola-liburutegiak birplanteatzea ekarri du. Interneten azkartasunak galzorian utzi ditu, nolabait esanda, kontsultatzeko liburuak eta ezagutzak zabaltzeko beste baliabideak ere (paperezkoak zein disketeak, kasetak, diapositibak,...) neurri handi batean baliogabetu egin ditu (Salaberria, 2008).

Liburutegiekiko interesa eta beharra ere murriztu zuen, baina Cabra-Torresek eta Marciales-Vivasek (2009) adierazi zuten moduan: "... el análisis de los datos de las investigaciones indica que no puede asumirse que debido al uso que hacen los estudiantes de unas determinadas tecnologías en su vida diaria, se garantice su uso en procesos de enseñanza y de aprendizaje" (330 or.) Hau da, Interneteko sarrera eskuragarriago eduki arren, ez da areagotu natibo digitalen alfabetatze digitala. Nahiz eta 10 urtetik aurrera umeen artean mugikorraren erabilera guztiz hazi eta 15 urte betetzean %94k bere mugikorra eduki (INE, 2017), hauek ez dute erraztasunik Interneten aurkitzen duten informazioa interpretatzeko eta hierarkizatzeke. Egiten dituzten ekintzak oinarrizkoak dira, eta jatorrizko informazioa hartu eta inongo aldaketarik gabe erabiltzea da ohiko joera. Hau da, alderdi akademikoan, trakets moldatzen dira euren bilaketetan (Salaberria, 2008; Area-Moreira, 2015).

Beraz, zer eskaini diezaioke gaurko eskola-liburutegi batek Hezkuntzari-ikastetxe bati-ikasten eta irakasten dabilen bati wifi konexio soil batek eskaini dezakeenaz gain? Durbanek (2010), Cencerradok (2017) eta Are-Moreirak (2018) uste dute, informazioaren eskuragarritasunean, erabileran eta zabalkuntzan aldaketak izan direnez, eskola-liburutegien funtzioa zehaztu behar dela testuinguru berri honetan, batez ere, ikaskuntza prozesuan zeresana eta funtzionalitatea izateko. Horretarako, eskola-liburutegiak eskolarekin harreman zuzena izan behar du, bien arteko kohesioaren bitartez, eskola-liburutegiaren baliagarritasuna bermatzeko.

Are-Moreiraren ustez (2018), eskola-liburutegien funtzioa ikasleei geletan erabiltzen dituzten liburuez gain, beste eratako material didaktikoa eskaintzea da: ipuinak, literatur lanak, entziklopediak, hiztegiak, inprimakiak, manipulatzeko bestelako material didaktikoak edo ikus-entzunezkoak. Hau da, gelan ikasitako ezagutzak zabaltzeko, gelatik kanpoko material didaktiko gehigarria eskaintzen dute liburutegiek, eta material didaktiko gehigarrien artean, teknologia berriak daude. Hala, liburutegiak liburuak biltegitratzeko

soilik ez diren moduan, ez dira soilik teknologia berrietara mugatzen ere. Funtsean, Durbanen (2010) eta Sellésen (2019) arabera, eskola-liburutegien funtzioa leku fisiko batean leku birtuala eskaintzea da, eta leku birtual hori era fisikoan antolatuta dagoen moduan antolatuta egotea. Beraz, Durbanek (2010) aipatzen duen leku birtuala izango da eskola-liburutegietan irakaskuntza-lanean aukera errealak sortzeko baliabidea eta gaurkotze prozesurako estrategia: teknologia berriekin harremanetan egotea izan daiteke gazteen, eta baita helduen, eskola-liburutegiekiko interesa pizteko gakoa. Horretarako, eskola-liburutegiko arduradunak paper garrantzitsua izango du, bera izango baita leku fisiko eta birtualak kudeatuko dituena. Hala ere, eskolako klaustroan txertaturik dagoen liburutegi-plan bat egon behar da honek benetan zentzua izateko (Durban, 2017).

Gizarte eta eskola digital batean eskola-liburutegiak izan behar duen ereduari buruz, Cencerradok (2007) aipatzen du Ramirezen arabera (2009) eskola-liburutegiek (gaurkotuek) hiru mailatan jardun beharko luketela: hezkuntza, kultura eta gizarte mailatan, hain zuzen ere. Hezkuntza mailak hobeto ikastea eta irakastea eskainiko du, alde batetik, liburu bidez, eta bestetik, baliabide digitalen bidez (Salaberria, 2008). Maila kulturean, irakurtzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko lekua eta kultura ezagutzak zabaltzeko prestatu daitezkeen jarduerak eskainiko dira. Eta azkenik, gizarte maila, gizarteko desberdintasunekin amaitzen, taldeko eta banakako integrazioa bultzatzen eta denontzako aukera berdinarik, edota eskola arrakasta ziurtatzen saiatuko da. Honekin azpimarratu nahi dena da, eskola-liburutegiak adin guztietako ikasleen oinarrizko konpetentziak garatzeko gako bihurtu daitezkeela (Ramirez, 2009) eta hori lortzeko, blogek lagun dezakete.

1.4. Blogen funtzioa Hezkuntzan, bai ikastetxeetan eta bai eskola-liburutegietan.

Albaren (2008) arabera, blogak esfortzu gutxirekin, irakurketa, eginkizun kultural eta informatiboak sustatzeko tresna dira. Ez dira informazio iturriak soilik, eskola-liburutegi blogen kontsumitzaileak, aldi berean sortzaileak eta egileak ere izan daitezkeelako. Izan ere, Seoaneren (2009) hitzetan, Internet eta IKTen inguruko oinarrizko ezagutza izanda, blogak leku dinamiko eta erabiltzeko errazak dira, blogetan informazioa sortu, partekatu, bilatu, hautatu, hedatu eta biltegiratu baitaiteke. Beraz, batzuen ustez, ikasgelan/eskola-liburutegian kalitatezko blog bat izatea eta erabiltzea "Konstruktibismo digital" a egitea da (Cobo, 2006). Arrazoiak hauek dira:

1. Proiektu guztiek esanahi handiagoa dute.

2. Blog batek on-line baliabide guztiak bildu ditzake, nobedade eta produktu berri guztiak ere bai, eta familiekin lankidetzan egoteko aukera ere ematen du.
3. Hezkuntza komunitateari ikasgela eta eskola-liburutegia irekitzen zaio, eta lanak, proiektuak, jarduerak eta kanpo-jarduerak erakutsiz, ikas-komunitatearen partaide bihurtzen ditugu.
4. Haurrak IKTen bidezko jarduerekin motibatzen ditugu.
5. Familia-gela-ikastetxe arteko komunikaziorako Internet baliabide interesgarria dela ikusarazten da.
6. Familiak gehiago inplikatu ditzakegu irakas-ikaskuntza prozesuan.
7. Gure esperientziak zabaldu eta besteenak jaso ditzakegulako errez.
8. Haur eta familia guztien esku jartzen dira kalitatezko on-line hezkuntza-baliabide onak.

Baina 8 puntu hauek zentzua izan dezaten eta eskoletako liburutegi-blogak probetxugarri izateko, Durbanen (2010) arabera, liburutegi-blog batek izan beharko lituzkeen edukiak 7 ezaugarritan zehaztu edo bildu daitezke:

1. Digitalizatutako lanak: liburuak, artikuluak, ikus-entzunezkoak, irudiak, soinuak...
2. Material didaktikoak on-line.
3. Gaika antolatutako web guneen estekak.
4. Eskola-liburutegiaren eta udal-liburutegiaren katalogoa eta datu basea.
5. Aldizkari eta egunkari digitalak.
6. Tresna digitalak: itzultzaileak, mapak, bilatzaileak, alertak...
7. Erreferentzia lanak: entziklopedia, hiztegi digitalak, mapak eta atlasak.

Era berean, Faba eta García 2015ean ikertu zituzten kalitatezko blog batek bete beharko lituzkeen ezaugarriak. Ikerlari hauek Extremadurako (Espainia) 4 adierazletara murriztu zituzten eskoletako liburutegien blogak aztertzeko puntu edo ezaugarriak. Hurrengoak: 1. Informazio Orokorra; 2. Edukiak; 3. Estekak eta 4. Zerbitzuak.

1.5. Eskola-liburutegi eta eskola-liburutegi blogen funtzioa Haur Hezkuntzan.

Eskola-liburutegiek Haur Hezkuntza etaparako baditu funtzio eta helburu argiak zehazturik, eta hala adierazten dituzte Martínez-Huelves eta Olaranek:

1. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzea: irakasleen eta liburutegiko arduradunaren arteko koordinazioari esker umeei irakurtzeko ohitura eta zaletasuna, haienganako konfiantza, irudimena, hizkuntza, adimen emozionala eta arreta mantentzeko gaitasuna lantzea eta lortzea bilatu nahi da.
2. Informazioaren erabileran alfabetatzea: Teknologia berrien bitartez informazioa lortu, ulertu, aztertu eta ezagutza berria sortzeko erabiltzeko gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak eskaintzea umeei.
3. Liburutegiaren funtzioa: bertako baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.

Badakigu zein garrantzitsua den irakurketa ondo sustatzea. Dударik gabe, haurrengan, lehenengo urteetatik hasita, irakurketa behar bezala sustraitzea nahitaezkoa da, irakurketa pertsona guztiontzat oinarrizko baliabidea izango delako gure bizitza profesionalean zein sozialean. Hortaz, eskola-liburutegiak ikaragarrizko erronka dauka Haur Hezkuntzako etapan hau lortzeko (Area-Moreira eta Ortiz, 2010).

Aurreko paragrafoan adierazten den ideia indartuz, Miret, Baró, Mañá, Velloso eta Martínez ikerlariak argudio berri bat gehitu zuten eskola-liburutegien balio eta garrantziaren defentsan. 2013an burututako ikerketan, ikertzaile hauek frogatu zuten eskola-liburutegiek aurrekontu finkoa eta oinarrizko funtzionamendu baldintzak bermaturik izanez gero, ikas-komunitatearentzako behar bezalako zerbitzua eskaintzen zutela, eta horrek zuzenean eragiten ziola ikasleek irakurketarekiko zuten jarrerari, positiboago bihurtzeaz gain, motibazio maila ere areagotzen zielako, eta hein berean, liburutegiekiko ikasleek eta irakasleek zuten interesari ere bai (Miret eta Baró, 2017).

Martínez-Huelves eta Olaranek (2009) baieztatzen dute, blogek, adibidez, aukera ematen dutela baliabideak (fitxak, olerkiak, jolasak, bideoak, klasean egindako jarduerak,...) etiketa desberdinen arabera antolatzeko, eta horrek asko errazten duela bilaketa. Haur Hezkuntzan (0-6 urte), eskoletako eta eskola-liburutegi blogek irakasle zein familientzako jarduerak biltzen dituzte, besteak beste, hurrengo baliabideen estekekin: jolasak, jaitsi daitezkeen material inprimagarriak, ipuinak,... Beraz, ikasgelan zein etxean erabil daitezkeen materialak aurki ditzakegu gune bakar batean, atal desberdinetan antolatuta (gaika eta alfabetikoki antolatuta): ipuinak, irakur-idazketa lantzeko materiala, liburuak, monografikoak, musika, irakasleentzako argialetxei buruzko informazioa, beste blog edo atariei buruzko

informazioa eta horiek ezagutzeko estekak,... Beraz, bloga etapa honetako haurrek landu behar dituzten konpetentzietan gaitzeko tresna paregabea da irakasleentzat zein familientzat (Durban, 2016).

1.6. Eskola-liburutegi blogen esperientziak.

Alonso-Martinek (2007) hurrengo dio blogekin izan duen esperientziaz:

Con esta idea empezamos hace ahora tres años y descubríamos el blog como un sencillo sistema de publicación, por lo que decidíamos emplearlo como un diario de las actividades que íbamos realizando en un grupo de trabajo que se formó para la gestión y dinamización de nuestra biblioteca escolar. No podíamos imaginar que estábamos abriendo una puerta que nos llevaría, casi sin querer, a un mundo con unas posibilidades tan amplias y enriquecedoras (Alonso-Martín, 2007).

Moreno-Gutiérrez, Meridako (Extremadura, Espainia) M.^a José Calatrava ikastetxe publikoko irakasle eta zuzendaria zen. *Mi Biblioteca* aldizkarian 2011n eginiko elkarrizketa batean, lau urte arinago Alonso-Martinek aipatutako ideia bera nabarmendu zuen. Honela zioen Moreno-Gutierrezek haien eskolako blogari buruz (2011, 45. or.): “Oinarrizko ideia da, gure eskolan liburutegitik zuzendutako lan guztia gordetzea, partekatzea eta erakustea. Ikasturte bakoitzeko eguneroko baten antzekoa da, memoria gisa balio duena”². Esaldi honetan blogen esentzia islatzen da, eta baita eskola-liburutegi batek zer nolako parte hartzea izan behar duen eskola-umeen eta ikastetxeen hezkuntza bizitzan.

Moreno-Gutierrezen Calatrava ikastetxeko blogean, materiala 4 ataletan antolatzen da: lehengoko atalean, irakurketaren inguruko urteko proiektuak biltzen dira, helburu, material, diseinatutako jarduera eta adinaren arabera antolatuta, eta bertako dokumentu guztiak deskargatu daitezke. Bigarren atalean, iragarkien saila dugu, eta bertan bost azpiatal aurki daitezke: “Irakurri” (liburu heldu berriak), “Ikusi” (haurrentzako filmen inguruko kritikak), “Parte-hartu” (eskolan edo herrian martxan jarri diren ekintzak edo tailerrak aditzera eman), “Joan” (kontzertu, antzerki, erakusketa edota herri-liburutegiko irakurketaren inguruko jardueri buruzko informazioa eskaini), eta azkenik, gaika antolatutako irakurlearentzako buletina, bertan web-en estekak, ikus-entzunezko materiala eta ikasleen lanak bisitatu daitezke. Material honetaz guztiaz gain, blogeko beste atal

² Pasarte hau lan honen egileak gazteleratik itzuli da.

batean, iragarkiak, irakurtzeko baliabideak edo Haur Literaturako liburuei buruzko erreseinak ere eskuragarri daude.

Bestalde, ikastetxe honek Youtubeko kanal bat irekitzea ere erabaki zuen, bertan irakurketa bultzatzeko eta sustatzeko ikasleek eginiko antzerkiak, errezitaldi poetikoak, irteera didaktikoak edota jendearen aurrean egindako irakurketak publikatzeko. Azkeneko erabaki honekin ikastetxe honetako partaideek argi uzten dute zein garrantzitsua den eskola-liburutegiari ahalik eta etekin gehien ateratzea, eta posible dela arrazoi desberdinengatik saiaketa hutsetan gelditu diren ahaleginak errealitate bihurtzea, baita hobetzea ere.

COVID-19ak eragin duen itxialdi egoeraren ondorioz, gizarte krisi mundiala sortu da. Krisi honetan Hezkuntza sistema barne dago. Egun batetik bestera klase presentzialetatik ez-presentzialerako pasatu behar izan dute ikastetxeek. Ez-presentzialtasunak funtzionatzeko, ikastetxe askok sare-sozialak erabiltzea aukeratu dutela dio Col·legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya (2020). Orain arte teknologia berriek indarra bazuten, baina egoera berezi honetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua posible izateko aukera bakarra bihurtu dira, Haur Hezkuntzatik maila gorenetakoa Hezkuntzataraino (Unibertsitatean ere esperientzia hori bizi izaten ari gara). Hainbat baliabide digital erabili dira, baina Haur Hezkuntzan eskola-liburutegi blogak izan dute indar gehien. Adibide argia dugu Kataluniako ikastetxe batzuetan, non haien liburutegietako blogak erabili dituzten jarduerak, ipuinak eta esteka interesgarriak partekatzeko. Hauek dira, beste batzuen artean, hezkuntza komunitateari zerbitzu horiek eskaini dizkioten eskola-liburutegien blogak:

- Oloteko Mediateka: <http://mediatecapiolot.blogspot.com/>.
- Jordina Vila Liburutegia, BHI Lluís de Requesens, Molins de Rei: <http://bibliorequesens.blogspot.com/>.
- Torrent d'en Melis eskolako Liburutegia: <http://bibliotecadeltorrent.blogspot.com/>.

2. Metodologia

2.1. Sarrera

Marko teorikoan azaldu bezala, eskola-liburutegi blogak dituzten funtzio garrantzitsuak direla eta, guk jakin nahi izan dugu EAEn eskola-liburutegi blogak zein egoeran dauden, eta bete beharreko funtzioen aldetik nolakoak diren. Azterketa hori egiteko, Faba eta Garcíak

2013an hasi eta 2015ean bukatutako Extremadurako (Espainia) eskola-liburutegi blogen inguruko ikerketa hartu da oinarri.

Faba eta Garcíak 2013an abiatu zuten ikerketa horren helburua eskola-liburutegi blogek bete beharko lituzketen kalitate eta ebaluazio ezaugarri edo adierazle zehatzak diseinatzea izan zen, baita horiekin Extremadurako eskola-liburutegi blogak neurtzea ere. Horretarako, beste autore batzuk haien webgune propioak ebaluatzeko erabilitako irizpideak bildu zituzten (ikus II Eranskinean Faba eta Garcíak erabilitako erreferentziak). Horrela, horiek erreferentziatzat hartuta, haien ebaluazio irizpide multzoa sortu zuten.

Faba eta Garcíak (2015) haien ikerketa egiteko, Extremadurako Autonomia Erkidegoko hezkuntza zentroak (guztiak, Unibertsitateak izan ezik) bi multzo nagusitan banandu zituzten: alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, eta bestetik, DBHko ikastetxeak. Multzokatze hau honela defendatu zuten ikerlari hauek: lehen multzoko irakasleen formakuntza berdina da, baina bigarren multzoko irakasleek ikasketa desberdinak dituzte; izan ere, irakasle hauen artean ingeniaritza ikasketak dituztenak badaude, eta beraz, blog bat egiteko orduan, bigarren multzoko blogak profesionalagoak izan daitezkeenez, era desberdinean ikertu behar direla erabaki zuten. Arrazoi honengatik ere, itunpeko ikastetxeak eta ikastetxe pribatuak ikerketatik kanpo utzi zituzten, batetik, ikastetxe horietatik gehienek Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzeaz gain, DBH ere eskaintzen zutelako; eta bestetik, DBH eskaini ez arren, ez zutelako eskola-liburutegi blogik. Beraz, Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen zuten 414 zentro publiko ikertu zituzten. 414 zentro horietatik zein ikastetxek zuen eskola-bloga aztertu ondoren, egiaztatu zuten 74 zentrok bakarrik zutela eskola-liburutegi bloga, hau da, hasierako laginetik %18,11k.

2.2. Zergatik erreproduzitu ikerketa hori

Marko teorikoan aipatu bezala, ikerketa gutxi dira, behintzat Espainian, eskola-liburutegien eta eskola-blogen egoera aztertzeke helburuarekin burutu direnak. Ikerketa guztietatik berriena eta erabilgarriena Faba eta Garcíak (2015) burututakoa dela uste dugu. Horretaz gain, ikerlari hauek datuak eta ikerketa burutzeko erabilitako metodologia azaldu dute pausuz pausu, eta horren ondorioz, edonori aukera ematen diote eskola-liburutegi blog baten azterketa egiteko haien lanean oinarrituz.

Hortaz, lan horri esker, GRAL lan honetan Faba eta Garcíaren ikerketa erreproduzitu da, gure Erkidegoko eskola-blogekin txertatzen dituzten eskola-liburutegi blogak zein egoeratan dauden aztertzeko xedearekin. Horretaz gain, ikerketa horren erreplika egiteak Espainiako beste Autonomia Erkidego bateko ikerketaren emaitzak Euskal Autonomia Erkidegokoekin konparatzeko aukera ematen du.

Horrela, Faba eta Garcíaren ikerketa Euskal Autonomia Erkidegoan errepikatzeke arrazoiak, eta beraz, gure lanaren helburuak, zehazki hiru hauek dira:

- EAEko zentroetako blogekin txertatzen dituzten eskola-liburutegi blogen errealitatea aztertzea.
- EAEko ikerketaren emaitzak beste Autonomia Erkidegoko azterketa bateko emaitzekin konparatzea.
- EAEko blogen azterketaren ondorioak ateratzea, baita bi Erkidegoetako alderaketaren ondorioak agertzea ere.

2.3. Lagina

Ikerketako lagina zehazteko orduan, EOEK (Ekintza Osagarri eta Eskolaz Kanpoko) programan (1995) parte-hartu zuten Euskal Herriko eskola-liburutegien katalogoa erabili da. Zerrenda hau, BEGEL (Bibliotecas Escolares de Gipuzkoa-Eskola Liburutegiak) elkartearen blogean azaltzen da. Zerrendan agertzen diren EAEko herrialde bakoitzeko eskolak banan-banan arakatu dira, egiaztatzeke zein eskola-blogekin jarraitzen duten eskola-liburutegi bloga txertaturik izaten eta zeintzuk ez. Bilaketa honen ostean, frogatu dugu zenbait kasutan eskola-blogekin liburutegiaren atala izaten jarraitzen dutela, baina informazio orokorra besterik ez dela agertzen, eta beste kasu batzuetan, liburutegiaren bloga agertzekotan, ez-operatibo daudela (ikus III, IV, V, VI eta VII. Eranskinak). 4 ikastetxe bakarrak dute eskola-liburutegi bloga haien eskola-blogekin txertaturik eta martxan.

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen arabera, eskola-liburutegi blogak aztertzeke lagina 4 eskola-liburutegi blogetara mugatu da: Donostiako Ikasbide ikastolako mediateka, Hondarribiko Talaia ikastetxeke mediateka eta Legazpiko Domingo Aguirre ikastetxeke liburutegike bloga (Gipuzkoakoak), eta Bermeoko San Frantzisko liburutegike bloga (Bizkaikoak).

Hala, hurrengo zerrendan zehazten dira aztertutako 4 eskola-blogekin txertaturik dituzten eskola-liburutegi blogak:

-Donostiako Ikasbide Ikastolako Mediatekaren Bloga:

<http://ikasbidemediateka.blogspot.com/>.

-Hondarribiko Talaia ikastetxeko Mediatekaren Bloga:

<http://talaiamediateka.blogspot.com/>.

-Legazpiko Domingo Aguirre ikastetxeko Liburutegiko Bloga:

<http://domingo-agirre.blogspot.com/>.

-Bermeoko San Frantzisko Liburutegiko Bloga:

<http://sanfrantziskoliburutegia.blogspot.com/>.

2.4. Neurketa

2.4.1. Itemak

Faba eta Garcíak Extremadurako eskola-liburutegi blogen ikerketarako (2013-2015), 4 ataletan (Informazio orokorra, Edukiak, Estekak eta Zerbitzuak) sailkatutako 32 item zehaztu eta erabili zituzten. Gure lana bi ikerlari hauen lan-metodologiaren errepikapenean oinarritu denez, 32 item hauek banan-banan aztertu eta gure ikerketarako erabiliko zirenak aukeratu ziren. VII. Eranskinean aurkezten dira 4 atalak eta erabilitako bakoitzaren azterketa-itemak euskaraturik. Emaitzen ataleko taulan (1 Taula), item hauek guztiak ageri dira.

Faba eta Garcíaren (2015) jatorrizko ikerketak, berez, 32 item hartzen zituen kontuan, eta item bakoitzari eskoletako liburutegiaren blogen kalitatean duten garrantziaren arabera 1-3 bitarteko balioak atxiki zizkieten. Gure ikerketa zentratzeko eta interes gehien zuten puntuetara zuzentzeko, item kantitatea gutxitzea (7 item gutxiago) erabaki da, item gutxi batzuk guztiz baztertuz, eta beste batzuk beste item batzuen barruan sartuz. Lehenengo taldeko item-ak, hau da, guztiz baztertu direnak, Faba eta Garcíaren jatorrizko ikerketan balio gutxien duten item-ak izan dira (ikus IX. Eranskina); eta bigarren taldeko item-ak, hau da, azpi item bihurtu direnak, orokorrean ezaugarri bera aztertzen duten item-ak dira, eta beraz, item nagusiak gain har ditzakeenak. Hortaz, laburbilduz, ikerketa honetan 25 item erabili dira (ikus IX. Eranskinean itemen aldaketak eta moldaketak).

2.4.2. Neurketa

Jatorrizko ikerketari jarraiki, aukeratutako itemak neurtzeko, Faba eta Garcíak sortutako bi parametro biltzen dituen errubrika hartu da kontuan: lehena, item bakoitzari ematen zaion garrantzia da; bigarrena, blogetan item bakoitzaren betetze-maila. Parametro bakoitzari neurketa-balore batzuk ezarri zaizkio. Lehenengo parametroa neurtzeko, neurketa-baloreak 1-3 bitartekoak dira. Bigarren parametroari dagokionez, neurketa-baloreak 0, 0.5 edo 1 dira, non 0 baloreak gutxieneko betetze maila adierazten duen eta 1ak gehieneko betetze maila (Faba eta Garcíak, 2015, 10-13 orrietatik hartuta).

Parametroen neurketa-baloreak erabilia, formula baten bidez lortutako emaitzekin blogak sailkatu dira. Emaitza gero eta altuagoa izan, orduan eta blogaren kalitate hobearen seinale da; eta kontrara, gero eta emaitza baxuagoa izan, orduan eta txarragoaren marka. Sailkapena egiteko formula hau da:

$$S_p = \sum_{i=1}^n p_i x_i$$

Sp= Ezaugarrien arteko batura.

pi= Item bakoitzaren balioa garrantziaren arabera.

xi= Item bakoitzaren betetze maila blogetan.

n= Blogak aztertzeko item kantitatea guztira, 25.

3. EMAITZAK

Hurrengo taulan (1 Taula), item bakoitzeko blogen betetze maila adierazten da. Betetze maila bakoitzaren zutabean, itemez item, neurketa-balore bakoitza zenbat blogek betetzen duten adierazten da, honela: balorea betetzen duten blogen kopurua, eta parentesi artean, lagineko 4 blogetatik kopuruaren ehunekoak.

1. **Taula:** Blogen betetze maila item bakoitzean.

	BETEZE MAILA		
EZAUGARRIAK	0	0,5	1
INFORMAZIO OROKORRA			

E1- Blog-aren URL-a.	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E2- Blogaren helburuen definizioa/zehaztapena.	0 (%0)	2 (%50)	2 (%50)
E3- Blogaren arduraduna den erakundearen identifikazioa.	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E4- Eskola-liburutegiaren antolaketa dokumentuak (proiektuak, memoriak...)	2 (%50)	0 (%0)	2 (%50)
C5- Bloga kudeatzearen arduraduna. Administratzailea.	%25 (1)	3 (%75)	0 (%0)
E6- Eskola-liburutegiaren irudiak eta argazkiak.	2 (%50)	0 (%0)	2 (%50)
E7- Sarrerren oinarrizko identifikazioa.	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E8- Sarrerren izenburuak.	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
E10- Tresna sozialak.	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E11- Harpidetza posta elektronikoz eta sare sozialen bidez.	2 (%50)	1 (%25)	1 (%25)
EDUKIAK			
E12- Egile eskubideak.	1 (%25)	2 (%50)	1 (%25)
E13- Nabigarritasuna. <ul style="list-style-type: none"> • C14- Barne nabigaziorako tresnak. • C15- Etiketak. 	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E17- Eguneratzea. Sarrera berrien maiztasuna.	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
ESTEKA			

E18- Beste liburutegi batzuetara jotzeko estekak.	1 (%25)	0 (%0)	3 (%75)
E19- Liburutegi publikoetarako estekak.	3 (%75)	0 (%0)	1 (%25)
E21- Interesguneetarako estekak. <ul style="list-style-type: none"> E20- Irakurketaren sustapenarekin lotutako estekak. 	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
E22- Hezkuntza argitalpenetarako sarbidea.	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
E24- Ikasleek egindako materialen sustapena .	1 (%25)	0 (%0)	3 (%75)
E25- Ikasleek egindako irakurketen gomendioak.	0 (%0)	1 (%25)	3 (%75)
E26- Esteken fidagarritasuna.	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
ZERBITZUAK			
E27- Maileguak.	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)
E28- katalogoa.	1 (%25)	0 (%0)	3 (%75)
E29- Orientabideak, albisteak eta bibliografia berriak.	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
E30- Irakurketa sustatzeko programak. <ul style="list-style-type: none"> E32- Irakurketa kluba. 	0 (%0)	0 (%0)	4 (%100)
E31- Eskola-liburutegiko jarduerak eta emanaldiak.	3 (%75)	0 (%0)	1 (%25)

3.1. Emaitzen analisia

Goiko taulan ikusten denez, emaitzen muturreko ehunekoa (blogen %100), betetze maila handiena (1) duten item-ak E8, E17, E21, E22, E26, E29 eta E30 dira. Kontrara, betetze maila

baxuena (0) duen itema E27 da. Datuok kontuan hartuta, esan dezakegu gehien betetzen diren item hauek hurrengo adierazten digutela:

- E8. Sarrera guztietan tituluak nahiko argi azaltzen duela bere edukia.
- E17. EAEn eskola-liburutegi blog oso gutxi daude bizirik, baina bizirik daudenak sarritan erabiltzen direla, gehien bat liburutegian antolatzen diren jardueren argazkiak igotzeko, umeen lanak argitaratzeko, liburu eta ipuin gomendagarrien zerrendak partekatzeko edota hiztegi digitalak eskuragarri izateko.
- E21. Blog guztietan Literaturaren inguruko milaka gune interesgarri, esteka edo gida daudela, baita joko, entziklopedia edo bestelako on-line baliabideak ere.
- E22. Esteka interesgarriak partekatzeaz gain, liburutegietan egiten diren jarduera guztien argitalpenak egiten dituztela, guztiek ikus eta ezagutu ditzaten, horrela, blogera igotzean, ikasleen lanari balioa ematen zaio, eta bide batez, hurrengo jardueretarako ere jendea animatzen dute.
- E26. Agertzen diren esteka asko orokorrean liburutegitik sortutako materiala, Web-gune ofizialak edo beste blog batzuk izaten direla.
- E29. Ikertutako blogetan irakurzaletasuna bultzatzeko nahia eta horri ematen zaion garrantzia nabaria dela; izan ere, hainbat editorial ezberdin, liburu gomendagarrien zerrendak edo ikasleek egindako gomendioak agertzen dira. Aldizkari digitalek ere euren lekua dute blogetan, haurrek edo nagusiek nahi izanez gero, munduan gertatzen denaz informatzeko.
- E30. Aurreko itemean aipatu bezala, blog guztiek dutela helburu funtsezkotzat irakurzaletasuna bultzatzea.

Bestetik, blog bakar batek ere betetzen ez duen item bakarra E27a da:

- E27. Eskola-liburutegi batek ere ez du ematen liburuen mailegua on-line egiteko aukerarik. Arrazoia kudeaketa izan daiteke: baliteke programarik ez edukitzea mailegu guztiak on-line kudeatzeko, eta beraz, liburutegira joan behar izatea libururen bat maileguan hartzeko edo etxera eramateko.

Laburbilduz, blog guztiek betetzen dituzte itemen %28, eta blog bakar batek ere ez itemen %4. Hala ere, badaude beste item batzuk 0 edo 1 betetze mailetan muturreko ehunekoa eduki ez arren, badutela ehuneko oso altua, %75:

- Blogen %75k dute goreneko betetze maila (1) 9 itemetan (item guztietatik %36): E1, E3, E7, E10, E13, E18, E24, E25 eta E28.
- Blogen %75k dute gutxieneko betetze maila (0) 2 itemetan (item guztietatik %8): E19 eta E31.

Beraz, 1 eta 0 betetze mailetan blogen %100 eta %75 duten itemak batera zenbatzen baditugu: 1 betetze mailan 16 item (%65) daude, eta 0 betetze mailan, 3 item (%12). Hots, betetze maila handia duten item-ak gehiago dira (itemen erdia baino gehiago), betetze maila oso baxua dutenak baino.

Hurrengo taula (2 Taula) EAEko eskola-liburutegien blogek lortu duten puntuazioaren sailkapenari dagokio, puntuazio altuenetik gutxiagora. Laneko "Neurketa" atalean (15. or.) azaltzen den moduan, azterketa hau bi parametro kontuan hartuz egin da: batetik, item bakoitzari eman zaion garrantzia, eta bestetik, blogen item bakoitzaren betetze-maila. Horiek kontuan izanda, 2. taulan ikus daitekeen bezala, puntuazio altuena Ikasbide ikastolako liburutegi-blogak dauka, bigarren gelditu den blogak baino 2 puntu gehiagorekin, eta laugarren, azkena, gelditu den blogetik ia 10 puntuko aldearekin.

2. **Taula:** Euskal Autonomia Erkidegoko eskola liburutegien blog-en sailkapena.

Kalifikazioa eta blog-aren izena		Blog-aren URL-a	Eskola	Probintzia eta herria	
1	48,3	Irakurmania	http://ikasbidemediateka.blogspot.com/	Ikas-Bide Ikastola	Gipuzkoa (Donostia)
2	46,4	Talaia Bordari Mediateka	http://talaiamediateka.blogspot.com/	Talaia HLHI	Gipuzkoa (Hondarribia)
3	44	Bermeo San Frantzisko Liburutegia	http://sanfrantziskoliburutegia.blogspot.com/	San Frantzisko Herri Ikastetxea HLHI	Bizkaia (Bermeo)

4	38.85	Gure berriak liburutegitik/Noticias desde la biblioteca	http://domingo-agirre.blogspot.com/	Domingo Agirre HLHI	Gipuzkoa (Legazpi)
---	-------	---	---	------------------------	-----------------------

Eskola-liburutegi blogen kalitatea neurtzeko eredu honekin lortutako sailkapena ez da ranking soil bat, baizik eta blogak hobetzeko bete beharrekoez ohartarazpen bat.. Sailkapena berez ez da garrantzitsua, sailkapeneko kalifikazioa bidelaguna baino ez da. Helburua, era objektiboan aztertzeko prozedimendu bati esker (eskola-liburutegi blogen kalitatea neurtzeko eredu) blog bakoitzean hobetu beharrekoez konturaztea besterik ez da.

4. ONDORIOAK

4.1. EAEko ikerketaren emaitzen ondorioak

EAEko ikerketarako 4 blog bakarrik aztertu dira, hauek direlako operatibo jarraitzen duten bakarrak. Hala ere, datuak behatzen badira, nahiz eta 4 blog soilik izan, lortutako puntuazioagatik esan dezakegu nahiko kalitate oneko blogak direla. Izan ere, garrantzitsuak diren item gehienetan betetze-maila gorena dute blogek. Batek ere ez du puntuazio gorenena lortu, baina laurak daude puntuazio gorenaren erditik gora. Hala ere, aurretik aipatu den moduan, lan honen helburua ez da ranking soil bat egitea. Helburua da blog horien hobekuntza proposamenak eskaintzea lau blog egileei. Inportanteena da kalitatezko lau blog hauek eredu onak direla beste blog batzuk sortzeko orduan.

4.2. Faba eta Garcíaren ikerketaren emaitzekin konparaketa.

Nahiz eta jatorrizko ikerketak biltzen dituen item guztiak kontuan ez hartu (lehenago aipatutako arrazoiak direla medio), ikerketa bien arteko berdintasun eta desberdintasun batzuk azaleratu ditzakegu. Desberdintasun nagusia muturreko datuetan ikusi daiteke: EAEko azterketan betetzen diren item-ak gehiago dira betetzen ez direnen aldean, eta jatorrizko ikerketan, aldiz, kontrara: Extremadurako blogetan, 6 item ez dira betetzen blogen %80an baino gehiagotan, eta 2 item bakarrik betetzen dira blogen %80an baino gehiagotan .

Eraitza antzekoetan fijaszen bagara, muturreko datuetan gutxien betetzen diren itemen artean, 27garrena (maileguak on-line) errepikatu egiten da ikerketa bietan, hau da, Extremadurako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-liburutegi blog guztiek ez dute item hau betetzen. Gehien betetzen diren itemen artean ere badaude kointzidentziak, E8 (Atalen izenburuak) eta E26an (Esteken fidagarritasuna), hain zuzen ere.

Jatorrizko ikerketan, eskola-liburutegi blog batek item guztietan 1 betetze maila edukiko balu, lor zezakeen kalifikaziorik altuena 74,5 puntu izango litzateke; Extremadurako blogen sailkapenari erreparatuz gero, kalifikazio erditik gora duten blogak 23 besterik ez dira, eta beste 52ak gutxieneko kalifikaziotik behera egongo lirateke. Hortaz, eskola-blogen kalitateari dagokionez, desberdintasun handiak daude Extremadurakoen artean. EAEko ikerketan aldiz, aztertu diren lau eskola-liburutegi blogen kalitatea oso antzekoa izan da. Blog gutxi diren arren, ahaztu gabe EAEko ikerketan itemen murrizketa dela eta kalifikaziorik altuena 60,6 dela, lau blogak kalifikazio altuenaren erditik gora daude. Sailkapen bietan bitxikeria bat ere aurki da: deigarria iruditu zaigu bi ikerketa hauetan puntuazio gehien lortu duten blogak, betetze osotik, puntuazio gorenetik, 12-13 puntura gelditu izana.

Hala ere, lehen aipatu bezala, eskola-liburutegi blogen kalitatea neurtzeko eredu honen helburua ez da ranking bat egitea, baizik eta blogak hobetzen laguntzea. Beraz, nahiz eta sailkapenean lehen eta azken postuetako blogen arteko aldea 10 puntuko izan, blogetan sartzean antzeko sententzio nabaritzen da: bakoitzak bere estiloa du, baina denetan dago joera berdina, blogeko bisitariekin materiala lana edo jardunaldiei buruzko informazio partekatzeko, irakurzaletasuna bultzatzeko, blogen bisitariak blogaren eta liburutegiaren parte izatearen nahia.

4.3. Eskola-liburutegi blogen egoera eta etorkizuna.

EOEK (Ekintza Osagarri eta Eskolaz Kanpoko) programan parte-hartu zuten EAEko ikastetxeak hiru lurralde historikoen arabera aztertzen baditugu, Bizkaian daude gehienak (%44,2), gero Gipuzkoan (%36,2) eta gutxien Araban (%19,6) (ikus III Eranskina). Gaur egun, aldiz, Bizkaian eskola-liburutegi blog bakarra dago bizirik, Gipuzkoan 3, eta Araban bat ere ez (ikus IV eta V. Eranskinak).

Faba eta Garcíaren (2015) ikerketan aztertu ziren Extremadurako eskola-liburutegi blogak berriro ere banan-banan arakatu dira, eta hau izan da aurkitu den egoera: Extremadurako eskola-liburutegi ia gehienak ere desagertu egin dira. Ikerketa egin zenean (5 urte pasatu dira), 75 blog zeuden bizirik, eta orain, 36 blog bakarrik. Bildutako datuak oso etsigarriak dira. Datu hauetatik ondorioztatu daiteke, bertan behera utzi diren eskola-liburutegietako blogak, eskola-liburutegietako abandonua bera ere erakusten dutela, seguru aski eskola-liburutegiko arduraduna edo liburuzaina desagertu delako.

Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) garaitik gaur egun arte (2020), garai ezberdinetan eskola-liburutegiak berpiztear zeudela pentsatu arren, ahalegin denetan porrota izan da nagusi. Badirudi eskola-liburutegien patua desagerpena dela, eta eskola-liburutegiekin batera, haien blogena era. Izan ere, liburutegien blogak ez dute zentzurik liburutegi barik. Eskola-liburutegien garrantzia azpimarratzen duten legeak eta haien blogen eragin akademiko positiboa baieztatzen duten ikerketak badira ere, Gobernuaren edo Administrazio publikoaren, eta baita irakasleriaren konpromisu barik, ezin izango da aipatutako patu iluna aldatu.

COVID-19ak eragindako itxialdiaren ondorioz, eskola-liburutegien eta haien blogen aldekoek frogatu diote berriz ere gizarteari zein garrantzitsua den haien funtzioa hezkuntzan (10. orrian azaltzen diren Kataluniako eskola-liburutegi batzuen esperientziak dira adibide ezin hobekak). Eskola-liburutegiak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak (bloga barne), ez dira eskolaren ordezkioak, argi ikusi baita zein konplexua den digitalki hainbeste ikasle-irakasle koordinatzea eta irakaste-ikaste prozesu arrakastatsua ziurtatzea. Baina erakutsi dute eskola-liburutegiek (eta bere zerbitzu guztiek) eskolan zeresana dutela, bata bestearen gehigarri direla eta baita, bateragarriak direla ere.

5. BIBLIOGRAFIA

- Alba, A.M. (2008). Blog y bibliotecas. *Biblioasturias11*, 10-12orr. http://movil.asturias.es/Asturias/descargas/PDF%20DE%20TEMAS/REVISTA%20BIBLIOASTURIAS/biblioasturias_11.pdf -tik berreskuratuta.
- Alonso Martín, J. A. (2007). Una biblioteca escolar 2.0. *Educación y Biblioteca*, 19(161), 98-102 orri. <http://gredos.usal.es/jspui/handle/10366/102624> tik berreskuratuta.

- Area-Moreira, M. (2018) Reinventar las bibliotecas escolares en la sociedad digital. *INED 21*. <https://ined21.com/reinventar-las-bibliotecas-escolares-en-la-sociedad-digital/> -tik berreskuratuta.
- Area-Moreira, M. (2015). Educar a la generación de los Millennials como ciudadanos cultos del ciberespacio. Apuntes para la alfabetización digital. *Revista Estudios de Juventud*, 109, 13-32 orr.
- Area-Moreira, M. eta ortiz, M. (2010). *Bibliotecas escolares ¿el último reino de papel?*. CEP La Orotava, Tenerife. <https://es.scribd.com/document/59063310/Bibliotecas-Escolares-el-ultimo-Reino-de-Papel> -tik berreskuratuta.
- Cabra-Torres, F. eta Marciales-Vivas, G.P. (2009). Mitos, realidades y preguntas de investigación sobre los 'nativos digitales': una revisión. *Universitas Psychologica*, 8(2), 323-338 orr. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=647/64712165004> -tik berreskuratuta.
- Cencerrado, L.M. (2017). La biblioteca escolar como interfaz social entre los usuarios y el conocimiento. *Libro abierto, Revista de las bibliotecas escolares de Andalucía*. <https://www.juntadeandalucia.es/educacion/portals/web/libro-abierto/opinion/-novedades/detalle/UiO5RJzNWrQE/la-biblioteca-escolar-como-interfaz-social-entre-los-usuarios-y-el-conocimiento-17684xkd1w0h6> -tik berreskuratuta.
- Cobo, C. (2006). Constructivismo digital: aprendizaje, conocimiento y colaboración. *ergonomic*. <https://ergonomic.wordpress.com/2006/08/26/constructivismo-digital-aprendizaje-conocimiento-y-colaboracion/> -tik berreskuratuta.
- Col·legi Oficial de Bibliotecaris-Documentalistes de Catalunya. (2020). *Las bibliotecas escolares en tiempos de confinamiento: ¿servicio básico o estratégico?* <http://www.cobdc.net/document/editorials/biblioteques-escolars-temps-confinament-servei-basic-estrategic/> -rik berreskuratuta.
- Durban, G. (2020). El docente bibliotecario, piedra angular para sostener las bibliotecas escolares. *bibliotecaescolar.info*. <http://bibliotecaescolarinfo.blogspot.com/search/label/Biblioteca%20escolar> -tik berreskuratuta.
- Durban, G. (2016). El portal digital de la biblioteca escolar: integrar plataformas para articular un entorno virtual propio. *bibliotecaescolar.info*. <http://bibliotecaescolarinfo.blogspot.com/2016/01/el-portal-digital-de-la-biblioteca.html> -tik berreskuratuta.
- Durban, G. (2010). Recursos digitales y biblioteca escolar: la posibilidad de ser más útil que nunca en los centros educativos. *Mi biblioteca: la revista del mundo bibliotecario*, (21), 64-70 orr.
- Fierro, J. (2008). Bibliotecas escolares a examen: consideraciones en torno al último estudio sobre la situación de las bibliotecas escolares en España. *Participación educativa*, (8),

- 93-108 orr. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/detalle.action?cod=14201> -tik berreskuratuta.
- García-Romero, J.E. eta Faba-Pérez, C. (2015). Desarrollo e implementación de un modelo de características o indicadores de calidad para evaluar los blogs de bibliotecas escolares de centros de educación infantil y primaria. *Revista Española de Documentación Científica*, 38(1). <http://dx.doi.org/10.3989/redc.2015.1.1169> -tik berreskuratuta.
- González, R. (2001). Ojeada histórica a las bibliotecas escolares en España. *Documentos de trabajo de la Universidad Rey Juan Carlos*, 11.
- Europapress. (2017). *El número de hogares españoles con acceso a Internet aumenta al 83,4%, según el INE*. <https://www.europapress.es/economia/noticia-numero-hogares-espanoles-acceso-internet-aumenta-834-ine-20171005153922.html> -tik berreskuratuta.
- InnovArte Educación Infantil Español (2011). *La biblioteca escolar en infantil: el no-espacio*. <https://innovarteinfantilesp.wordpress.com/2011/10/21/la-biblioteca-escolar-en-infantil-el-no-espacio/> -tik berreskuratua.
- Martínez-Huelves, M.J. eta Olan, M. (2009). Bibliotecas escolares en Educación Infantil. In Atención temprana en educación infantil. *Cursos de verano El Escorial. Escuela Complutense de verano UCM*, Madrid. https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/190/22196_BEenInfantil22196.pdf?sequence=1 -tik berreskuratuta.
- Miret, I. eta Baró, M. (2017). Bibliotecas escolare a pie de pagina. *La lectura en España. Informa* 2017, 127-138 orr. http://www.fge.es/lalectura/docs/La_Lectura_en_Espana.pdf -tik berreskuratuta.
- Moreno, M.D. (2011). La web de nuestra biblioteca escolar: una ventana abierta al mundo. *Mi biblioteca: la revista del mundo bibliotecario*, (26), 44-47.
- Nogales, J.M. (2017). "Las bibliotecas escolares, salvo singulares situaciones, no existen como sistema en nuestro país. Esto es algo penoso" *Mi biblioteca. La revista del mundo bibliotecario*, (48), 18-20 orr.
- Ramírez, A. (2009). La biblioteca escolar: de la biblioteca tradicional a la biblioteca que desarrolla competencias básicas. *Boletín de la Asociación Andaluza de Bibliotecarios*, 24(94-95), 59-76 orr. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=31977> -tik berreskuratuta.
- Salaberria, R. (2008). Bibliotecas escolares en España: que veinte años no es nada. *Educación y biblioteca*, 20(165), 57-62 orr.
- Sellés, A. (2019). 4 retos para la biblioteca escolar 2020. *Jornada técnica: Biblioteca escolar. Cuestión de enfoque*. Santiago de Compostela. <https://www.edu.xunta.gal/biblioteca/blog/files/Jornada%20t%c3%a9cnica.pdf> -tik berreskuratuta.

Seoane, C. (2009). *Uso y aplicaciones de los blogs en una biblioteca escolar*. <https://es.slideshare.net/catuxa/uso-y-aplicaciones-de-los-blogs-en-una-biblioteca-escolar> -tik berreskuratuta.

Serna, M. (2015). *Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak eta irakurtzearen balioa eskola-liburutegiaren eraginari buruzko azterketa* (Doktoretza tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, Bizkaia. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18475/TESIS_SERNA_MARTINEZ_MAITE.pdf?sequence=1&isAllowed=y -tik berreskuratuta.

Serna, M.; Rodríguez, A. eta Etxaniz, X. (2017). Biblioteca escolar y hábitos lectores en los escolares de Educación Primaria. *Ocnos: Revista de Estudios sobre Lectura*, 16(1), 18-49 orr. <https://www.redalyc.org/pdf/2591/259151088002.pdf> -tik berreskuratuta.

6. WEBGRAFIA

BEGEL Gipuzkoako Eskola-Liburutegien Bloga:

<http://bibliotecasescolaresguip.blogspot.com/p/quienes-somos.html>

Bermeoko San Frantzisko Liburutegiko Bloga: <http://sanfrantziskoliburutegia.blogspot.com/>

Donostiako Ikasbide Ikastolako Mediatekaren Bloga: <http://ikasbidemediateka.blogspot.com/>

Hondarribiko Talaia ikastetxeko Mediatekaren Bloga: <http://talaiamediateka.blogspot.com/>

Legazpiko Domingo Aguirre ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://domingo-agirre.blogspot.com/>

ARABAKOAK:

Ibaiondo Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://www.ibaiondolhi.hezkuntza.net/es/blog-de-la-biblioteca>

BIZKAIKOAK:

Ignacio Aldekoa Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://liburutegialdekoa.blogspot.com/>

Juan Bautista Zabala Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://zabalaliburu.blogspot.com/>

Kontxa Eskola Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://jmsmliburutegia.blogspot.com/>

Legardade Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://legardaliburutegia.blogspot.com/>

Rontegi Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://rontegi.blogspot.com/>

San Ignacio Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://bibliosanignacioeskola.blogspot.com/>

Tomas Camacho Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://liburutocamacho.blogspot.com/>

GIPUZKOAKOAK

Gainzuri Eskolako Liburutegiko Bloga: <http://gainzurikoliburutegia.blogspot.com/>

Toki-Alai Eskolako Liburutegiko Bloga: <http://mediatekatokialai.blogspot.com/>

Zuhaizti Ikastetxeko Liburutegiko Bloga: <http://mediateka-zuhaizti.blogspot.com/>

KATALUNIAKOAK

Mediateca de Olot: <http://mediatecapiolot.blogspot.com/>

Biblioteca Jordina Vila, del IES Lluís de Requesens, en Molins de Rei:
<http://bibliorequesens.blogspot.com/>

Biblioteca de la escuela Torrent d'en Melis: <http://bibliotecadeltorrent.blogspot.com>